

urkoa

DESGAITASUNA LAGUNTZEKO LEGEA

APLIKAZIOA ETA ZENBAIT
ESPERIENTZIA ERREAL

6-10 Or.

DAVID MAYOR

DESGAITASUN-EGOERETAN,
HAU DA LAGUNTZARIK ONENA:
INTERESATUAREKIN BATERA
PRESTATZEN DENA

18-20 Or.

EKIN GOGOZ!

JARDUERA FISIKOAK
ADINEKOEN ARTEAN DUEN
ERAGIN ERALDATZAILEA

10-11 Or.

ZERBITZU OROKORRAK

Morlans, 13 behea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
idazkari@hurkoa.eus

LAGUNTZA-NEURRIAK

Morlans, 13 behea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
idazkari@hurkoa.eus

Gernikako Arbola Pasealekua, 16
20006 Donostia
Telefonoa 943 468 956

Ferrerias, 32 behea
20500 Arrasate
Telefonoa 943 770 938

Geltoki, 7
20301 Irun
Telefonoa 943 568 640

Kale Nagusia 60 behea
20720 Azkoitia
Telefonoa 943 468 956

EGUNEKO ZENTROA

Ntra. Sra. de las Mercedes
Nafarroa Etorb., 31
20013 Donostia
Telefonoa 943 293 111
cdmercedes@hurkoa.eus

AURKIBIDEA

- 2 2023ko gure jarduera
- 3 2026ra begira
- 4 Desgaitasuna Laguntzeko Legea: aplikazioa eta zenbait esperientzia erreal
- 9 Lankidetzeta-giroan
- 10-11 Ekin gogoz! Jarduera fisikoak adinekoen artean duen eragin aldatzailea
- 12 Hauskortasunari aurre egiteko urrats bat
- 13 Boluntariotza, etengabeko erronka
- 14-15 Borondate aurreratuak
Gure geroa antolatze gakoak
- 16 Gizarte-hauskortasuna neurtzeko, BaTuran aplikatu da Azkoitian, Pasaian eta Tolosan
- 17 Hurkoaren sailkapena: berriz ere hiru izar
- 17 Itxura berria gure webguneak
- 18-20 Elkarriketa David Mayorri: "Desgaitasun-egoeretan, hau da laguntzarik onena: interesatuarekin batera prestatzen dena"

GURE ALIANTZAK



HURKOA 2023



ARTATUEN KOPURUA

LAGUNTZA-NEURRIAK **615**

EGUNEKO ZENTROA

Astelehenetik ostiralera **91**

Asteburuetan **48**

HAUSKORTASUNA **33**

Hauskor Programa **62**



FINANTZAKETA

HAUSKORTASUNA

Diru-sarrerak **244.655,84€**

Gastuak **185.635,89€**

Aldea **59.019,95€**

LAGUNTZA-NEURRIAK

Diru-sarrerak **1.631.897,02€**

Gastuak **1.625.456,87€**

Aldea **6.440,15€**

HURKOA ZAINDUZ

Diru-sarrerak **1.473.472,44€**

Gastuak **1.465.830,95€**

Aldea **7.641,49€**



PROFESIONALAK **67**

BOLUNTARIOAK **74**

NON GAUDE

Irun

Donostia

Tolosa

Azkoitia

Arrasate



2026ARI BEGIRA

“

2023/2026 eperako Plan Estrategiko berria jarri dugu martxan 2023aren hasieran. Plan berriari jarraikiz, HURKOA taldeko erakundeen helburu estrategiko nagusia ez da pandemiaren aurreko “normaltasunera” itzultzea, baizik eta ikasitakoaz baliatzea datozkigun erronka berri eta handiei aurre egiteko.

”

Adinekoen eta mendekotasun- zein desgaitasun-egoera pairatzen dutenen arretari eta haientzako laguntzari dagokionez, haien autonomia eta ongizatea sustatzen saiatu gara, familiei lagunduz, haien eskubideak eta askatasunak babestuz eta gizartean parte har dezaten bultzatuz, eta gizarte-hauskortasunaren eremuan sortzen diren beharrei ahalik eta erantzun egokiena emanez.

COVID-ak eragindako zailtasun izugarriak eta Desgaitasuna Laguntzeko Legearen aplikazioak berekin dakartzan ziurgabetasunak eta gorabeherak kontuan hartuta, ondo asko dakit patronoen iritzia ari naizela adierazten zera diodanean, aintzatetsi egiten dugula HURKOAko Plan berrira bildu diren kide eta laguntzaile guztien ilusioa eta konpromisoa.

Osasun-larrialdia jada amaitua dugun honetan, gure miresmena ere gehitu nahi genioke aintzatespen horri, miresgarria izan baita —zinez— gure erakundeak inguruabar latz haiei aurre egiteko modua. Eta, beste behin ere, zenbait pertsonaren, erakunderen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketak eta Gizarte Politiketako Departamentuaren laguntza izan dugu, zeina bihotzez eskertzen baitugu. Aipamen oso berezia merezi, bestalde, diru aldetik bereziki defizitarioak izan ziren ekitaldi ekonomiko haietan Gipuzkoako Caritasek eskaini zigun laguntza jarraitu eta baldintzarik gabeak.

2023ko jarduera bereziei dagokienez, aipatzekoak dira azaroaren 23an eta 24an eginiko jardunaldiak, desgaitasuna laguntzeko lege berriaren neurrien aplikazioa aztertzeko antolatuak (bi urte jada legea onartu zela). Adinekoen eta gaixotasun mentalen zein desgaitasunen bat dutenen aldeko zazpi fundaziotako ordezkariak elkartu ginen jardunaldietan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Aretoko Fiskalaren alboko fiskal David Mayor Fernándezekin aztertzeko kuradoretzan agertzen diren arazo larrienetako batzuk aztertzeke. Jardunaldiak oso esperientzia positiboa izan zirela ikusirik, berriro egitea erabaki zen, gutxienik urtean behin.

Bereziki aipatzekoak dira, halaber, hauskortasunaren alorrean emaniko urratsak: BaTuran tresnaren aplikazioa, esate baterako Tolosako Udalak hala eskatuta jarri zen martxan baliabide hori, zeinaren bidez inkesta bat egin baitzitzairen 25 laguni, azarotik aurrera, haien gizarte-hauskortasunaren maila ezagutzeko; Lahar Elkargoarekin sortutako ABEEa, Hauskor programa (hauskortasunaren arlokoa) eta Azkoitiko adinekoentzat eguneko arreta kudeatzeko, eta Pasaiaiko Udalarekin sinatutako lankidetzahitzarmena udalerri horretan Hauskor programa garatzen jarraitzeko.

Halaber, 2023an amaitu dira Eguneko Zentroaren beheko solairuko egokitze-lanak, eta bukatutzat jo dira eraikin hori irisgarritasunaren eta hobekuntza energetikoaren gaineko araudietara moldatzeko obrak.

Azkenik —baina ez garrantziari dagokionez—, pandemiak eragindako geldialdiaren ondoren berriro ekin diegu gure boluntarioak trebatu, informatu eta aintzatesteko jarduerari. Funtsezkoa izan da boluntarioen lankidetzak eskuzabala eta eraginkorra gure erakundearen helburuak eta xedeak lortzeko.

Aipatutako jarduera eta informazioen eta beste batzuen berri dakarkigu 2023ko Aldizkari/Txosten honek, zeina arreta handiz prestatu baitigu, Juan Carlos Maleten zuzendaritzapean, interesgarria izango zaizuelakoan.



José Luis de la Cuesta
Hurkoako eta Hurkoa
Zainduzako presidentea



...ETA ORTERA,
ZER ALDATU DA?

DESGAITASUNA DUTENEN ALDEKO LEGEA

APLIKAZIOA ETA ZENBAIT ESPERIENTZIA ERREAL

Desgaitasuna duten pertsonen tutoretza bertan behera uzten duen lege-erreforma onartu ondoren, zenbait erakundetako ordezkariak eta hainbat gizarte-eragile elkartu zituen Hurkoak iragan azaroan, lege berriaren aplikazioak dakartzan aurrerapausoei eta zailtasunei buruz eztabaidatzeko.

Diagnostiko orokorraren arabera, lege berria onartu zela bi urte igaro diren arren, oraindik ere baliabide egokiak jarri behar dira hura egokiro garatu eta ezartzeko. Bat datoz honetan gaiarekin lotura duten eragile guztiak (justizia-administrazioa, gizarte-zerbitzuak, desgaitasuna duten pertsonak artatzen dituzten erakundeak...): badago zer eginga oraindik ere.

Zenbait erakundetako ordezkariak hitz egin zuten topaketaren inaugurazio-ekitaldian, eta lege berriak sortu duen egoerari buruz zer iritzi duten adierazi zuten guztiek.

Desgaitasuna duten Pertsonak eta Adinekoak Babesteko Estatuko Fiskaltza Nagusiko Koordinazio Unitatearen Aretoko fiskala den José Segarraren iritziz, “babesen premiak markatzen du haien intentsitatea; desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien arazoak gutxitzen ahalegintzen den unitate eragile bat gara gu, haien autonomia eta haien zaintzaileena areagotzen saiatzen dena”.

Gipuzkoako Zainketa eta Gizarte Politiketako foru-diputatu Maite Peñak, berriz, zera adierazi zuen: “Desgaitasuna duten pertsonen ahalduntze-prozesu bat da; beraz, bai pertsona horiek, bai gizarte osoak gureganatu behar dugu aldaketa hori, eta desgaitasuna dutenen autonomia sustatu eguneroko jardunean”.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Nerea Melgosak, berriz, zera azpimarratu zuen, zahartze-prozesuaren alorreko euskal estrategia dela eta: “Bizi-eredu independentea dugu desgaitasuna duten pertsonentzat. Baina badago zer eginga oraindik ere jendearen premia larrienak asetzeko eta gizarte inklusiboago bat eraikitzeko, aniztasuna aintzat hartzen duen gizarte bat”.

Denbora eta baliabideak

Estatuko Fiskaltza Nagusiko Desgaitasunaren eta Adinekoen Unitatera atxikitako David Mayor fiskalak honako hau azaldu zuen jardunaldiaren inaugurazioko hitzaldian: “Laguntza-sistema askoz pertsonalizatuagoa eskatzen du lege berriak, hots, ahalegin, baliabide eta denbora gehiago behar dira, arreta pertsonalizatuagoa eman ahal izateko. Batez ere gizarte-erakundeei dagokie ahalegin hori”.

Mayorrek adierazi zuenez, “lege honek eskaintzen dituen aukera guztien % 10 bakarrik ari gara erabiltzen; denbora behar da, besteak beste orain arteko ezgaitze guztiak berrikusteko; halaber, baliabide, epaitegi, fiskaltza-alor, justizia-administrazioko langile eta desgaitasuneari espezializatutako psikologo eta auzitegi-mediku gehiago behar dira lan horri ekiteko”.

Aurora Elósegui ere azaldu zuen bere ikuspuntua. Hogeita bost urtez jardun zen epaile-lanean Elósegui, desgaitasun-arazoetan espezialista, eta erretiratuta dago gaur egun. Desgaitasun mentala eta intelektuala dutenei buruzko gogoeta egin zuen epaile ohiak, bere esperientzia oinarri harturik: “Oso lege konplexua da, eta zenbait burutazio eragiten dizkit: Nola konpondu autonomiarekiko errespetuaren eta desgaitasun mentala/intelektuala dutenak zaintzeko obligazioaren arteko auzia, jakinik pertsona horietako batzuk duineztasun-egoeran daudela ia-ia eta uko egiten diotela laguntza jasotzeari? Nola babestu pertsona horiek euren buruan dituzten beldurretatik?”.

Igurikimenak

Aipatutako gaiak eta beste batzuk jorratu ziren topaketan antolatutako bi mahai-ingurutan. Lehenbizikoan “Legearen igurikimenak” Kataluniako Malats Metals Fundazioko zuzendari Victòria Monellek, senideen ordezkari Rosalía Sánchezek eta Hurkoa Fundazioko Laguntza Neurriak arloko zuzendari Susana Montesinok hartu zuten parte.

Victòria Monellen iritzian, “gizarte-sare osoari dagokio arazoa, pertsona batek zer behar edo nahi duen jakitea. Aldatu egiten du esku hartzen duten eragile guztien lan egiteko

era. Proaktiboak izan behar dugu, berehala detektatzeko laguntza behar duten pertsonak, euren borondatea ahoz adierazteko gai diren bitartean”.

Gaixotasun mental bat duen pertsona baten senide Rosalía Sánchezek, bestalde, zera esan zuen: “Arbuioa eta adieztintasuna eragiten dute gaixotasun mentalek, baita beldurra ere. Jendeak ez dituela maite uste dute gaixoei eta, aldi berean, bizitasuna kentzen die medikazioak. Hona zein den ikasi nuen gauzarik garrantzitsua: gaixoen ondoan egon behar dugu, haien erritmora jardun, eta gaixotasunarekin bizitzen ikasi. Luzea da prozesua, latza sufrimendua, eta asko kostatzen da hura onartzea”.

Susana Montesinok, berriz, hau adierazi zuen: “Zaharkitua dago gure gizartea, eta geroz eta zaharragoa izango da; beraz, geroz eta jende gehiagok pairatuko du mendekotasuna eta beharko ditu laguntza-neurriak, borondatezkoak edo erabaki judizialen bidezkoak”.

Neurriak

“Kuradoretza eta beste laguntza-neurri batzuk” izan zen bigarren mahai-inguruaren gaia; partaideak, berriz, hauek: desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzan





espezializatutako Bilboko lehenengo auzialdiko 14. epaitegiko magistratu Patricia Arrizabalaga, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren Euskadiko ordezkaria desgaitasun-gaietarako]; Eusko Jaurlaritzako Justiziako zuzendari Eugenio Artetxe, eta EAEko Notario Elkargoko presidente dekanok Diego Granados.

Hona zer zioen Diego Granados notarioak horri buruz: “Botere prebentiboa eta ordezkapenerako kuradoretza dira gakoak. Kontua da pertsonak aldeztatik jakitea zeinek ordezkatu behar duten edo eman behar dizkieten laguntza horiek, eta ahalmen horien irismenaren arabera garapena antolatzea, betiere kontrol-mekanismoak ezarritik. Geroztik eta jende gazteagoa etortzen zaigu, gaitasun osoen jabe direla eta geroztik ekar ditzakeen arazoak jakitun”.

Eugenio Artetxek, berriz, desgaitasuna duten zenbait lagunen artean berriketan egindako inkesta baten berri eman zuen. “Informazio ulergarria eta beren

arazoak adierazteko denbora” eskatzen zuten inkestatuek, eta “enpatiarik eza” salatzen zuten, baita “jasotzen dituzten laguntzen antolaketan esku hartzeko aukerarik ez” izatea ere.

Patricia Arrizabalaga epaileak, bestalde, erabaki judizialak hartzeko orduan erakundeek gizarte-txostenek duten garrantzia aipatu zuen: “Aurkeztu zaigun laguntza-planaren mende daude pertsonak behar dituzten laguntza doituak eta orekatuak ezartzeko

ebazpenak. Eta izugarritzko garrantzia du gizarte-zerbitzuek, erakundeek, familiek eta gainerakoek hori kontuan izatea.

Ekitaldiaren amaieran, honako hau azpimarratu zuen Gipuzkoako Probintziako Fiskalburu Juan Calparsorok: “Gogoeta egin behar da pertsonen egoerei buruz, eta denen artean aztertu, haien arteko bizikidetzak eta bizimodua hobetzeko”.



Lankidetzagiroan

Desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duten zazpi fundaziotako ordezkariak aritu ziren, jardunaldi batean, Estatuko Fiskaltza Nagusiko Desgaitasunaren eta Adinekoen Unitatera atxikitako fiskal David Mayorrekin. Beroa, Feclem, Malats Mentals, Gertuan,

Alzheimer Catalunya, Support Girona eta Hurkoa fundazioetako ziren gainerako parte-hartzaileak, eta denen artean azaldu zituzten lege berriaren aplikazioak eguneroko jardunean eragiten dizkien arazoak eta zailtasunak.

Erakundeetako ordezkarien iritziz, hau da atzemandako oztopo nagusietako bat: egiaztatzeko zaintzaileen legezko aitorpenik eza, zeinak zaildu egiten baitu zainduen ondasunak eta zerbitzuak kudeatzeko lana.

Pertsona baten kuradoretza-lana egiten duten erakundeek ordainsari judizialei dagokienez, berriz, premiazkoa da erreferentzia-taulak prestatzea zerbitzuen kostua kalkulatu eta laguntza-hartzailearen ahalmen ekonomikoarekin lotzeko; halaber, laguntza-hartzailea hil ondoren kobratzeko mekanismoak ere ezarri behar dira.

Desgaitasuna duten pertsonen buruzko informazio zabalagoa eskuratzeko premia da laguntza-kuradoretzaren

erronka nagusietako bat, funtsezkoa arreta profesionala eta kalitatekoa bermatzeko. Izan ere, desgaitasuna dutenen egoera ekonomikoa, finantzarioa, zibila, klinikoa, soziala... eskuragarri edukitzeak lagundu egiten du agindu judizialen babes- eta arreta-eginkizunak betetzen.

Anbiguitasunak saihestu eta babes eraginkorra bermatzeko, ezinbestekoa da laguntza juridikoak zorrotz zehaztea, hartara ordezkari-tzaren rola beste gizarte-zerbitzu batzuekin ez nahasteko.

Batzuetan, talka egiten dute elkarrekin laguntza-hartzailearen borondateak eta kuradoretza ordezkari-tzaren funtzioak, fundazioek dituzten kasuen portzentairik handiena izanik, eta

zainduen duintasuna eta zaintza bermatzearen garrantzia nabarmen adierazten da.

Hau eskatzen da kuradoretza-fundazioentzat: aitorpen ofiziala administrazio publikoen laguntzaile gisa dagokiena eta laguntza ekonomiko egonkorra, pertsona bakoitzari ematen zaion arretari lotua. Halaber, prozedura judizial sinpleagoak eskatzen dituzte erakundeek, kostu gehigarriak eragiten baitizkiete desgaitasuna dutenei abokatuaren eta prokuradorearen laguntza behar delako.

Laburbilduz, honako hau nabarmendu da topaketan: elkarlanean eta premiaz ekin behar zaiela erronka horiei, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatu ahal izateko.



LAGUNTZA-NEURRIAK

Pertsona-kopurua

615 Artatuak

333 Gizonak

282 Emakumeak

146 80 urtetik gorakoak

179 65-79 urtekoak

200 50-64 urtekoak

81 30-49 urtekoak

Familia-kopurua

85 Lehen kontsulta

51 Artatuak



EKIN GOGOZ!

Jarduera fisikoak adinekoen artean duen eragin eraldatzailea

Onuragarria da jarduera fisikoa adineko guztientzat, baita Hurkoaren eguneko zentrora etortzen direnentzat ere. Badira jada 30 urte Ntra. Sra. De las Mercedes zentroan taldeko ariketa-errutina bat egiten dela, zentroko

fisioterapeuta Mertxe Silvo buru dela. Erabiltzaileek dinamika horietan duten esku-hartze zabala azpimarratu du Silvok, eta ariketak egiteak adinekoei dakarzkien abantailak gogoratu.

Hona adinekoei erregularitasunez jarduera fisikoa egitearen berariazko xedeak: giltzaduren mugikortasuna, koordinazioa, indarra eta giharren erresistentzia hobetzea, eta oreka eta ibilera sendotzea, erorketak saihesteko. Hurkoaren eguneko zentroko esperientziak erakusten duenez, taldeko jarduera fisiko horrek aberastu egiten ditu parte-hartzaileen gizarte-harremanak eta autoestimua, eta hobetu egiten du —aldi berean— haien bizi-kalitatea.

2023an, hiru psikomotrizitate-talde antolatu ziren. Berrogei minutuko saioak egiten zituzten, eta parte-hartzaileen egoerara eta ahalmen kognitibora egokituak ziren ariketak. “Jarduera horrek izan duen partaidetza-portzentaje handia” aipatu du Mertxe Silvok, “zentroko erabiltzaileen % 85ek hartzen baitu parte, gustura gainera. Hain zuzen ere, hori da gogobetetze-inkestetan balorazio onena jasotzen duen jardueretako bat”.

Ariketa ugari egiten dira: giltzaduren mugikortasuna hobetzekoak, indarra areagotzekoak, gorputz-eskema eta lateralitate-ariketak, orekari eustekoak zutik zein eserita, adinekoen egoera fisikoak horretarako aukera ematen badu. Inolako materialik gabe egiten dira batzuk; beste batzuetarako, berriz, baloiak, pilotak, jausgailuak, sokak, gomak, zapiak, pikak... erabiltzen dira eta, noski, musika. “Hartara —diosku Mertxe Silvok— alderdi fisikoa lantzeaz gain funtzio kognitiboak eta harreman sozialak suspertzen ditugu, eta loturak sortzen adinekoen artean”.

Psikomotrizitateko talde horiek ez ezik, ibilaldiak ere sustatzen dira jarduera fisikoko programan, ariketa aerobiko oso egokia baita pertsonen autonomia funtzionala hobetzeko.

Ariketa terapeutikoa

Bestalde, errehabilitazio fisikoa behar dutenak fisioterapia-zerbitzura joan daitezke, banaka zein talde txikitan, zentroan egiten duten jarduera fisikoaren ariketa osagarrietara, ahalmen funtzionalari eusteko edo hura hobetzeko. Bide batez, zenbait esperientzia eta itxaropen partekatzen dituzte, eta lorpenak trinkotzen.

Zentrora gorpil-aulkian etortzen direnei ere urrats batzuk oinez egin ditzaten eskatzen diegu —horretarako gai badira behintzat— bi pertsonaren laguntzaz. Horretarako, leku eta aukera egokiak bilatzen ditugu, joan-etorriak ahalik eta modu autonomoenean egin ditzaten. 2023an, % 96ko parte-hartzea izan zuten ibilaldi horiek. Udan, berriz, aire zabalean lorategian egiten dira taldekako psikomotrizitate-jarduerak eta ibilaldiak.

Musika, berriz, oso elementu lagungarria da ariketetarako eta ibilaldietarako. Hilean behin dantza-saio bat egin ohi da, eta urte osoan egiten diren jaietan ere sustatzen dira dantza eta ariketa terapeutikoa.

Funtsezkoa da, Mertxe Silvok dioskunez, “pertsonen gaitasun fisikoari zein kognitibo eta emozionalari egokituta egotea ariketa. Zentroko fisioterapeutaren ustean, berriz, “oso kontuan hartu behar dira erritmoak eta pertsonen beharrak, zeinak aldatu egin baitaitezke denboraren poderioz; malguak izan

behar dugu, eta arreta handiz begiratu nola dauden une bakoitzean, behar bezala lagundu ahal diezaiegun”.

Eta azken gogoeta hau ere egin du: “Bai zentroaren erabiltzaileei, bai haien zaintzaileei, lagungarri zaie ariketa terapeutikoa bizimodu osasuntsua izan dezaten”.

**“Taldekako
jarduera fisiko
horrek giza
harremanak
aberasten ditu,
eta autoestimua
hobetzen”**

EGUNEKO ZENTROA



Astelehenetik ostiralera

Artatutako pertsona-kopurua **91**

Gizonak **% 23**

Emakumeak **% 77**

Batez besteko adina **85**

Mendekotasun ertaina / larria **% 58**

Mendekotasun handia **% 28**

Asteburuak

Artatutako pertsona-kopurua **48**

Gizonak **% 23**

Emakumeak **% 77**

Batez besteko adina **85**

Mendekotasun ertrina / larria **% 70**

Mendekotasun handia **% 23**



HAUSKORTASUNARI AURRE EGITEKO URRATS BAT

Azken urteotan, hauskortasunaren arreta ari da bultzatzen Hurkoa, zenbait ekimenen bidez: txostenak eta azterketak, Hauskor programa eta adinekoen hauskortasun-maila neurtzen duen 'BaTuran' tresnaren garapena. Nolanahi dela ere, lehentasunezko ekintzetako bat honako hau da: gizartea sentsibilizatzea egoera horretaz eta hari aurreko egiteko premiaz.

Hori dela eta, gogoeta-jardunaldi bat antolatu zuten Hurkoak eta Aubixak, hauskortasunaren kontzeptua Zenbait ikuspegitatik jorratu eta gizartea sentsibilizatzeko egoera horretan daudenen beharrak asetzeko premiaz.

Topaketan izan ziren José Félix Martí Massó neurologoa, Biodonostiako zuzendari Itziar Vergara, Aubixa Fundazioaren ordezkari Martín Auzmendi, eta Hurkoako José Luis Marañón.

Honela definitu zuen hauskortasuna Martí Massok: faktore mediko, mental eta sozialek eragiten duten sindrome geriatrikoa. Haren prebalentziak duen garrantzia ere aipatu zuen: 65 urtetik gorako herritarren % 3 eta % 30 bitarteri eragiten die.

Itziar Vergarak, berriz, "hauskortasunaren kontzeptua zabala dela" esan zuen, "eta era askotako egoerak hartzen dituela barne, guztiak ere aintzat hartu beharrekoak osasun-arretari dagokionez adinekoen beharrak asetzeko".

Martin Auzmendik, bestalde, honako hau proposatu zuen: "Osasun- eta gizarte-zerbitzuak integratzea, batez ere lehen mailako arretan, hauskortasun-egoera jasaten dutenei arreta integrala eskaini ahal izateko". Hauskortasuna Zerbitzu Zorroaren Dekretuan sartzea ere aldarrikatu zuen, udalek behar dituzten tresnak eta baliabideak izan ditzaten.

Hurkoako José Luis Marañónek, berriz, hauskortasunari gizarte-ikuspegtik ekiteko beharra aipatu zuen. Marañónen iritzian, "familiaren, auzoaren eta gizarte-zerbitzuen laguntzak konpentsazio gisa dihardu egoera horiei aurre egiteko ekinean".

Hori guztia dela eta, ezinbestekoa da gizartea ahalegin horretara erakartzea eta herritarrek hauskortasun-egoerak identifikatu eta prebenitzeko beharraz kontzientziaztea zahartze-prozesu autonomoa eta osasuntsua izan dadin.

HAUSKORTASUNA

Artatutako persona-kopurua

3 kontsulta berri

22 aldian behingo arretan

8 ohiko arretan



HAUSKOR Programa

14 Arrasate

17 Azkoitia

31 Pasaia

BOLUNTARIOTZA, ETENGABEKO ERRONKA



Pertsonak zaintzea da Hurkoa erakundearen eginkizuna; begien bistakoa da, beraz, boluntariotzaren ekarpen gizatiarraren garrantzia. Bakardadeari aurre egiten laguntzea, adiskide bat alboan izatea edo, besterik gabe, norekin jardun edukitzea funtsezko alderdiak dira laguntzaren bat behar dutenen bizi-kalitatea hobetzeko.

Zaila da jokabide horien garrantziaz inor ohartaraztea boluntarioak erakarri nahi direnean. Nola erantzun, izan ere, Hurkoara hurbildu eta zer egin dezaketen galdetzen dutenei? Zalantzarik gabe, subjektibotasunez eta emozioz beteriko jarduera baten egiazko balioa aurkitu duten beste boluntario batzuen da erantzunik egokiena. Horregatik, “ahoz ahoko” propaganda da boluntario berriak erakartzeko biderik onena.

Erronka bat

Ekintza solidarioa moteltzen ari da, gure ingurune bilakaerak erakusten digunez. Horrekin batera, areagotu egin dira baliabide eske ari diren era guztietako erakundeak; hori dela eta, erronka bilakatu da boluntarioen kudeaketa.

Hurkoari dagokionez, azken urteotan berrantolatuta egin dugu gure egitura, boluntarioen sentsibilizazioa eta gaitasunak areagotzearen. Bi bide jorratu ditugu horretarako: alde batetik,

boluntarioen kudeaketa-talde bat sortu dugu, alor hauetaz ardura dadin: alde batetik, kide berriak erakartzea, ahalduzko-beharrak eta -eskariak, erakundearen balioak hedatzea eta talde-kultura sustatzea —batez ere etxez etxe banaka diharduten boluntarioen artean, zeinek lotura eskasa baitute erakundearekin—; bestetik, boluntariotzaren eginkizun ezinbestekoaz eta funtsezkoaz gizartearen sentsibilizazioa.

Inplikazioa

Hona zer aldarrikatzen duten boluntarioek: parte-hartze handiagoa laguntza jasotzen duten pertsonengan laguntzan eta kudeaketan; laguntza-plan indibidualizatuak prestatzea; erreferentzia izatea, edo lehen mailako informazio-iturria, eta abar. Erakundearentzat oso baliagarria eta aberasgarria den informazioa dute boluntarioek erabiltzaileen arreta pertsonalizatuaz, eta esku-hartze handiago batek zentzua eta motibazioa ematen die eguneroko jardunerako.

Beraz, boluntariotzaren kudeaketa egokia ebaluatzeko irizpideak ezarri behar dira, arretaren kalitatea eta berotasuna oinarri dituzten parametroak erabiliz. Zalantzarik gabe, etengabeko bilakaera batean murgildurik dagoen erronka zirrargarria da boluntariotza.

“Gure inguruko egoera ekintza solidarioaren bultzada-galerarantz aldatzen ari da”

BORONDATE AURRERATUAK GURE GEROA ANTOLATZEKO GAKOA

Geroz eta garrantzi handiagoa dute askatasunak eta pertsonen borondateak gure gizartean eta legerian, eta bide beretik jo du arreta soziosanitarioak ere, zeinak pertsonen eta haiei eragiten dieten gaiei buruzko erabakiak hartzeko orduan behar duten autonomiari ematen baitie lehentasuna.

Arreta-ereduek izan duten bilakaera dela medio jarrera paternalista batetik oso bestelako batera, gaur egun pertsonak eurek erabakitzen dute beren bizitzako gai garrantzitsueni buruz, beren balio, sinesmen eta lehentasunen arabera.

Hona pertsonen autonomiaz erabakitzeko ahalmena duten funtsezko gaitetako bat: zer zaintza sozial eta sanitario jaso nahi dituzten.

Badira jada hamarkada batzuk osasun-arloko legeriak pazienteen baimena ezarri zuela. Honenbestez, pertsonen osasun-arloko aukeren askatasun osoz artean hautatzeko eskubidea dute, eta tratamendu jakin bat onartzeko edo hari uko egiteko, dagokien informazio guztia jaso ondoren.

Baina egoera batzuetan pertsonak ezin dituztenez adierazi beren nahiak eta iritziak, Borondate Aurreratuak dira haiekiko errespetua bermatzeko bidea.

Idatziz

Idatzizko agiri baten bidez adierazten du pertsonak horretarako gai baldinbada,

askatasun osoz, laguntzari buruzko zer jarraibide hartu behar diren kontuan borondate hori adierazteko gai ez den egoeretan. Agiri horretan jasotzen dira osasun-alorreko irizpideak, —tratamendu edo zainketa jakin batzuk onartzeari edo ez onartzeari dagozkienak, bizitzaren amaieran jaso



nahi duen arretari buruzkoak, hiltzeko laguntza izatearren gainekoa (2021ean onartu zen eskubide hori ordenamendu juridikoan), organo-dohaintzaren gainekoa, hil ondoren gorpuari eman beharreko tratamenduari eta azken agurrari buruzkoak.

Agiria idatzi aurretik, komeni da gai horietaz hitz egitea jenderik hurbilenarekin, izan ere, unea iristean, jende horrek hartu behar izaten ditu erabakiak, zama emozional handiko giroan. Asmoak idatziz jartzea da pertsonaren borondatea aintzat hartuko dela bermatzeko modua eta pertsona maiteen erabakiaren zama arintzekoa.

Agiri horretan izendatzen den ordezkariak edo ordezkariak berariaz eta idatziz onartu behar dute izendapena. Haiek dira, izan ere, pertsonaren nahien eta lehentasunen berri egiazki dakitenak, eta bitartekari gisa jardungo dira osasun-arloko langileekin.

Nola egin behar da?

Agiria egiteko hiru modu daude:

lehenbizikoa, adinez nagusiak eta ahalmen guztien jabe diren hiru lekukoren aurrean. Lekuko horietatik bik ezin dute izan loturarik interesdunarekin baldin eta arrazoi hauetakoren bat badago tartean: hirugarren maila arterainoko ahaidetasuna, odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen harremana edo lotura profesionala. Bigarren aukera notarioaren aurrean egitea da kostua, notario-eskrituren gisakoa; Hirugarrena, Borondate Aurreratuen Euskal Erregistroarena.

Baina agiria egiteko eskaria handitu egin dela ikusirik, osasun-sare publikoko pertsonal medikoa eta erizaintzakoa gaitu da, berrikitan, Borondate Aurreratuen agiria formalizatzeko. Beraz, inoiz baino egokiagoa eta garrantzitsuagoa da osasun-arloko langileei adieraztea agiria idazteko nahia.

Idatzi ondoren, Borondate Aurreratuen Euskal Erregistroan inskribatzen da agiria, zeina nahitaez bete behar baitute pertsona artatzen duen osasun-alorreko langileek.

Asmoak idatziz jartzea da pertsonaren nahiak aintzat hartuko direla bermatzeko modua eta hura maite zutenen erabakiaren zama arintzekoa.



GIZARTE-HAUSKORTASUNA NEURTZEKO, BATURAN APLIKATU DA AZKOITIAN, PASAIAN ETA TOLOSAN

Hurkoak eta Deustuko Unibertsitateak sortu zuten BaTuran tresna, adinekoen gizarte-hauskortasuna neurtu eta, hartara, haien bizi-kalitatea hobetzeko eremuak identifikatzearren. Oraingoan, Gipuzkoako hiru udalerritan erabili da tresna, hauskortasun-egoeran dagoen jendea aurkitu eta haien bilakaera aztertzeko.

Azkoitia eta Pasaia, Hauskor ezarri dute, gizarte-hauskortasuneko egoeran dauden adinekoak artatzeko Hurkoak sortutako programa, alegia. Herritar hauek ditu xede programak: euren etxean bakarrik bizi diren baina beharizan batzuk asetzeko gizarte-laguntzaren bat behar dutenak. Udalekin elkarlanean garatu da programa, zeinaren helburua euren auzoan eta euren etxean bizitzen jarrai nahi duten adinekoen bizi-kalitatea hobetzea baita.

Pasaian, 31 lagun artatu ditu Hauskor programak, eta hobetu egin da haien % 71ren egoera; Azkoitia, berriz, 17 kasu berri artatu dira.

Tolosan, hiru hilabete iraun du programaren lehenbiziko saioak, zeina udaleko gizarte-zerbitzuek aurkeztu baitzuten. Eta emaitza orokorren arabera identifikatu da hauskortasun sozialeko egoeran dauden profila, batez besteko adina, eta egoera hori gehien pairatzen duten eremuak.

Tresna


Gizarte-diagnostikoak egiteko lagungarri zaie alor horretako profesionalei BaTuranen informazioa, baita —hala badagokio— adinekoen hauskortasunaren alorrean esku-hartzeak planifikatzeko ere.

Gizarte-hauskortasunaren lau alderdi edo eremu nagusi jorratzen ditu tresnak: eguneroko bizimoduko jardura instrumentalak, sare sozialak, eta partaidetza, bizi-proiektua, egoera edo testuingurua.

Hamabi hilabete igarota, berriro egiten da azterketa, adineko bakoitzak

nolako bilakaera eta ibilbidea izan duen jakiteko. Egoera interesgarria erakusten digute lanaren emaitzek —arretaren ikuspegi prebentibotik begiratuta— adinekoen autonomiatik mendekotasunerako bidea aztertuta, euren etxean eta euren ingurukoei loturik bizitzen jarraitzeko aukera ematen baitie.

Gizartearen ikuspegitik begiratuta, berriz, pertsonen euren inguruneari atxikirik jarraitzea da xedea; halaber, sentsibilizazio-lana egiten da, inguruneko sistemekin eta gizarte-eragileekin, adinekoen gizarte-hauskortasunaz.



HURKOAREN SAILKAPENA: BERRIZ ERE HIRU IZAR

Berriz ere hiru izarreko kalifikazioa jaso du Hurkoaren Laguntza Neurrien sailak Develop Taldearen Gizarte Erakundearen Kudeaketa Ereduaren bigarren ebaluazioan. Gizarte-alorrean diharduten elkarte, erakunde, GKE eta bestelako taldeek aplikatzen dituzten kudeaketa-sistemen aholkularitzan eta ebaluazioan espezialista da erakundea.

Ebaluazioak atzemandako indarguneen artean daude 2023-2026 eperako Plan Estrategikoa prestatzeko eginiko gogoeta sakona, adierazleen jarraipena

egiteko aginte-koadro integral baten diseinua, eta Hurkoak bere kode etikoa prestatu eta bere interes-taldearen artean zabaldu izana.

Bestalde, gogoeta batek argituko du zenbateraino egiten duen bat Hurkoaren jarduerak NBEk ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), eta 2026an egitekoa den hurrengo ebaluaziorako erronka berriak identifikatzen lagunduko du.

Aitorpen horrek sendotu egiten du

Hurkoak bultzatzen duen proiektuaren balio soziala, eta mendekotasuna, desgaitasuna edo hauskortasuna pairatzen dutenei laguntzeko ekinean aurrera jarraitzen laguntzen du.



ITXURA BERRIA GURE WEBGUNEAK

Hurkoak bere webgunea berritu du, duela gutxi, gure erakundearen zerbitzuen berri hobeto emateko interesa duten guztiei. Argitasuna eta irakurtzeko zein nabigatzeko erraztasuna, horiek dira gizartearekin harremanetan jarduteko Hurkoak duen bide nagusiaren bertsio berriaren ezaugarri aipagarrienak.

Leku nabarmena dute webgunearen orri nagusian Hurkoak eskaintzen dituen hiru arreta-eremuek (Eguneko Zentroa, Laguntza Neurriak eta Hauskortasunaren Arreta). Helburua: interesa dutenek intuitiboki jasotzea Hurkoak eskaintzen dituen zerbitzuen berri, informazio hori euren egoera edo beharrei aurre egiteko lagungarri izan dakien.

Garrantzi handia ematen zaie webgune berrian Hurkoaren gaineko informazioari eta haren ekimenei, eta gardentasun osoz ageri da erakundearen jardura, antolakuntza eta konpromisoei buruzko informazioa.



David Mayor

Estatuko Fiskaltza Nagusiko
Desgaitasuna duten Pertsonen
eta Adinekoen Unitateko fiskala

**“Desgaitasun-
egoeretan, hau da
laguntzarik onena:
interesatuarekin
batera prestatzen
dena”**

Zuzenbidean lizentziaduna da David Mayor Fernández, eta Funtsezko Eskubideetan graduondokoa. Oviedon jaio zen, 1978an, eta 2006an ekin zion fiskal-lanari. 2020ra arte, Gipuzkoako Fiskaltzan jardun zen, non Desgaitasunaren eta Adinekoen saileko koordinatzailea izan baitzen, besteak beste. 2022ko urriaz geroztik, berriz, Estatuko Fiskaltza Nagusiko Desgaitasunaren eta Adinekoen Unitateko fiskala da.

2021ean onartu zen desgaitasuna duten pertsonen buruzko legearen erreforma. Zein da horri buruzko zure balantzea?

Izugarri positiboa da balantzea, araudiari bagagozkio: nabarmen aldatu da, izan ere, botere publikoek eta gizarteak desgaitasunarekiko duten ikuspegia. Hauek ditugu sistema berriaren funtsezko elementuak: desgaitasuna duten pertsonen aniztasun funtzionalaren aitortzea eta harekiko errespetua; pertsona horien erabateko inklusioa, eskubideberdintasunaren bermeari esker; diskriminazio-mota ororen debekua, eta desgaitasuna dutenei abusu- edo hauskortasun-egoeren aurka ematen zaien babesa. Autonomia pertsonala eta bizimodu independentea izateko eskubidea dira sistemaren euskarriak.

Badirudi ozenago aipatzen direla zailtasunak alderdi positiboak baino, oraingoz behintzat...

Lege berriaren izaera eraldatzaile sakona dute sorburu nagusia zailtasunek. Hiru urteotako esperientziak erakutsi digunez, horrelako lege-erreforma esanguratsuek trantsizio-epe luzeagoak behar dituzte, bai eta aurrez diseinatutako eta progresiboki aplikatzeko plan integralak ere, administrazio guztiekin koordinatuak.

Eskertzekoa litzateke, bestalde, gizarte-zerbitzuen alorrean eskumenak dituzten administrazioek familiei laguntzeko ibilbideak antolatzea, justizia-administrazioarekin elkarlanean, antzinako zaintza-sistematik egungo bitarteko

***“Nabarmen aldatu da botere
publikoek eta gizarteak
desgaitasunaz duten ikuspegia”***

berrietara aldatzeko. Eta garaiz gabiltza hori lortzeko.

Komenigarria litzateke, halaber, administrazio publiko guztiek aitortzea —ohiko izapide eta kudeaketa guztietan— familiek izatezko zaintzaile gisa egiten duten lana. Eta funtsezkoa da laguntza neurri boluntarioen berri zabaltzea, hurrengo belaunaldiak honetaz jabetu daitezen: desgaitasun-egoeran daudenei eman dakiekeen laguntzarik onena interesatuak

berak diseinatzen duena dela, hobeto bermatzen baitu autonomia pertsonala.

Zer ari da egiten administrazioa oztopo horiek kentzeko eta gainditzeko?

Desgaitasunaren eta Adinekoen Unitatearen bitartez, oztopo horiei aurre egiteko zenbait ekimen bultzatu ditu fiskaltzak —aretoko fiskal María José Segarra buru duela, eta BJKNrekin elkarlanean—, lantaldeez eta koordinazio-bilerez baliatuta,

jarduteko arauak eman baitira eta jardunbide egokiak sortu legeria berria aplikatzeko. Bestalde, jarduera eta lan-ildo ugari bultzatu ditu fiskaltzak gizarte-zerbitzuekiko eta lurralde bakoitzeko administrazioarekiko koordinazioa hobetzeko, eta osatu egin du Desgaitasunaren eta Adinekoen alorreko lurralde-ordezkarien sarea.

Zein dira erreforma horrek desgaitasuna duten pertsonen ekarri dizkien alderdi positibo nagusiak?

“Lege berriaren izaera eraldatzaile sakona dute sorburu nagusia zailtasunek”



Zalantzarik gabe, hau da alderdi positibo aipagarriena: euren bizitzaren agintea itzuli zaie desgaitasuna duten pertsonen, beren prozesu propioetan erabakiak hartzeko eskubidea sustatuz. Argia izan da prozesua, eta printzipio legal gisa ezartzeak eragina izan du bai botere publikoen jardueran, bai funtsezko zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde pribatuen jokabidean, baita herritarren

sentsibilitatean eta familia barruko harremanetan ere.

Estatuko Fiskaltza Nagusitik, zer deritzezue desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko lan egiten duten pertsona eta erakundeen aldarrikapenei?

Oso lagungarriak zaizkio fiskaltzari pertsona horiekin lan egiten duten profesional, erakunde eta boluntarioen

ekarpenak eta esperientziak. Alde batetik, beren familia-ingurunean behar adinako babesik ez daukaten adinekoen eta desgaitasuna dutenengan egoeraren berri ematen digute. Izan ere, oso kezkarria da nahi gabeko bakardadean bizi diren adinekoen hauskortasun-egoeren areagotzea. Bestalde, balorazio aditua ematen digute, urteen bilakaera aintzat hartzen duena, desgaitasuna duten pertsonen

erronkak direla eta. Iritzi kualifikatu gisa jasotzen eta entzuten ditugu haien kezkak eta baliabide- zein aldaketa- eskariak.

Prozesu horretan, zenbateko garrantzia du Hurkoaren eta antzeko erakundeen jarduerak, kontuan izanik esperientzia luzea dutela?

Funtsezkoak dira, laguntza-sistamarako, ibilbide luzeko erakundeak Hurkoa, esate baterako, eta haren zutabe nagusietakoa dira, laguntza-zerbitzuen administrazioarekin eta justizia-administrazioarekin batera, beste inorena iristen ez den lekuetara heltzen baita haien babesa. Botere juridikoari laguntzen dion administrazio arteko lankidetzaren eredu horren ardatza, Gipuzkoan, Hurkoa da, besteak beste. Erakunde horien ekarpen eskergarik gabe ezingo zatekeen lortu

arrakasta sozial eta kolektibo hori.

Legeak ez du inolaz ere ezartzen zer kudeaketa-eredu erabili behar duten administrazio publikoek, baina esperientziak dioskunez, irabazi-asmorik gabeko erakundeekiko lankidetzak eskuartze profesional eta espezializatu bat ematen dio laguntza-beharren profil bakoitzari, eta nekez lortuko genituzkeen egungo arreta- eta ardura-mailak baldin eta administrazioa bakarrik arduratu izan balitz zeregin horretaz.

Zein dira desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzen jarraitzeko eman behar diren hurrengo pausoak edo erronkarik hurbilenak?

Laguntzak jasotzeko eskubidea funtsezkoa da pertsonaren gainerako eskubideen eraginkortasuna eta haien

duintasuna bermatzeko.

Laguntzen lege-egitura hori dela eta, nahitaez ekin behar zaio gizartearen bermea ziurtatzeari, hura bermatzen duen prestazio publiko baten bidez, mendekotasun-sistemako prestazioen barruan.

Zerbitzu-zorroetan prestazio-eskubide gisa aitortuz gero botere juridikoaren aldeko laguntzak —finantzaketa publikoari, koordainketari eta abarri dagozkien baldintzak tarteko direla—, egonkortasuna eta planifikazio egokia emango zaio lehendik ere erakunde publikoarekin elkarlanean diharduten erakundeentzako baliabide- eta bitarteko-hornidura, eta bermatu egingo da alor horretan nahitaezkoak diren berdintasuna eta justizia soziala.

“Hau da alderdi positibo aipagarriena: euren bizitzarekiko jabetza itzuli zaiela desgaitasuna duten pertsonen”

Elkarrizketa osoa irakurri nahi baduzu:

